

AMARAUNAK

Inhar Esnaola Barriola

Berastegi

Ahula naiz, babesik gabea erabat,
ufada soil batek eroan nazake.

Aske naiz ordea.

Eta aske izatea aski da haizearen aurka
hegoak zabaldu eta harro erakusteko
ez dela besterik behar zerbait
izateko.

Zu agertu arte.

Ederra zara, liluragarria.

Nire aurrean ezarrita, besoak zabalik,
irribarre zuriaz itsutu nauzu

“zatoz” esanez.

Eta ni, sena sorgindurik,

“amets” hartan murgildu naiz,

ildoan zugaran amaitzen dela ohartzeke.

Amaraunean erori arte.

Orduan jabetu naiz egiaz.

Amarruan amildu naiz.

Orain zure sare likatsuan itsatsirik nago
gatibu, eta ez aske.
Akabo.

Benetako zu agertu arte.

Amaraunean behera zatoz, astiro hurbilduz.
Iletsua, beltza, zantarra
zara.
Irrikaz zaude nire zanbulu bakoitzari
so eginez.
Zu gose. Ni dardarka.

Oldartu zaren arte.

Erraiak sutan, hagin hotzen baitan.
Jario pozoitua zainetan zehar.
Muinak zurrun, begiak lauso. Ez naiz
ezertarako gai. Ez naiz
ezer

Herioa heldu arte.

Emeki kiribildu nauzu amaraunean
zortzi hanken laguntzaz.
Biraka, biraka momifikatuz,
heriozko dantzara kondenatuz.
Eta iritsi da nire ordua.
Astiro, astiro xurgatu nauzu
Azal hits eta ihar bilakatu arte.
Bihotza zurrupatu arte.

Egunsentian
amaraunak kristalezko

ttantten euskarri dira,
argi ahularen ispilu diren
arrastoek
ostertza bereizten dutelarik.

Haize-kirri hotza dabil
ihintzaren lurrina darien bitxiloreak
laztanduz.
Hodei malenkoniatsuen pean.

Eta ni, lau horma hauen artean
preso.
Denbora iluntasun hezean galtzen
doan heinean,
itokarrean
naukate iraganeko gomutek.
Zure irudi lausoak
oinazera
amiltzen nau,
behin eta berriz,
zauri irekia izaki.

Leiho ertzeko amaraunean
ditut begiak.
Uko egin diet katez lotzen
nauten harrizko gogoetei,
loa noiz helduko zain.
Ez dut “ametsik” egin nahi,
Ez dut “ametsik” egin nahi,
Ez dut “ametsik” egin nahi ...

Ttantto.